



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA  
ELKARGI, EBB SOZIJETATEAREN ARTEKO HITZARMENA, ZEINAREN  
BIDEZ EUSKAL ENPRESA-SEKTOREARI FINANTZA-LAGUNTZA  
EMATEKO PROGRAMA 2026RA LUZATU BAITA, NAZIOARTEKO MUGA-  
ZERGA EGOERA BERRIAK ETA EKIALDE HURBILEKO GATAZKA  
BELIKOAK ERAGINDAKO INPAKTU EKONOMIKOARI ERANTZUTEKO**

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

**BILDU DIRA:**

Alde batetik: Noël D'Anjou Olaizola jauna, **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
ADMINISTRAZIOA**ren izenean eta haren ordezkari gisa; hitzarmen hau sinatzeko  
ahalmena du, Ogasun eta Finantzarako sailburua denez gero.

Eta bestetik: Zenón Vázquez Irizar jauna (NAN zenbakia: \*\*\*5079\*\*), **ELKARGI,  
EBB**ren izenean eta haren ordezkari gisa; hitzarmen hau sinatzeko ahalmena du,  
sozietatearen zuzendari nagusia den aldetik. Sozietatearen IFZ V-20066411 da, eta  
Donostian du egoitza, helbide honetan: Mikeletegi pasealekua 50 (Gipuzkoa).

Bi alderdiek hitzarmen hau sinatzeko nahikoa gaitasun eta ordezkariak aintzatetsi diote  
elkarri, eta ados jarrita hauxe

**AZALTZEN DUTE**

2025eko ekainaren 26an, hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko  
Administrazioak, Elkargi, EBBk eta bederatzi finantza-erakundek, EAEko enpresa-  
sektoreari finantza-laguntza emateko programa antolatzeke, nazioarteko muga-zergen  
egoera berriak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteke.

Haren bidez, aurre egin nahi zitzaizen Estatu Batuetako administrazioaren muga-zergen  
plan berriak eta haren ondorengo aldaketek sortutako ondorioei; horren ostean, muga-  
zerga komun berri bat ezarri zen, printzipioz behin betikoa, Europar Batasunetik Ipar  
Amerikako lurraldera egindako esportazio guztiei aplikatzeko.

Muga-zergen ingurune berri horrek haustura nabarmena eragin du, eta haren ondorioak  
epe ertainean nabaritutako dira. Hala, merkatu hartan interes zuzenak edo zeharkakoak  
dituzten eragile ekonomiko guztiek horretara egokitu beharko dute.

Egoera berri horren ondorioak denbora-egoera zehaztugabeen hedatuko direnez, eta iazko hitzarmenaren ondorioak uda aurreratu ahala hasiko direnez eragina sortzen, beharrezkotzat jotzen da antzeko ezaugarriak dituen hitzarmen berri bat onartzea 2026 urterako.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabaki du aurreko urtean hartutako ezohiko neurrien indarraldia luzatzea. Neurri horien helburua deskribatutako egoeratik eratorzen ari diren zuzeneko ondorio kaltegarriak arintzea da, bai eta kaltetutako enpresei esparru berrira pixkanaka egokitzen laguntzea ere, likidezia hornitzeko tresnak ezarriz.

Horri gehitu behar zaio Ekialde Hurbileko gatazka beliko berria. Gertaera horrek ondorio nahasgarriak ditu euskal enpresen jardueran, eta berehalako ondorioak ditu, hala nola energia-kostuen igoera, nazioarteko logistikaren aldaketa edo esportazio- eta inportazio-jardueraren arriskua eta ziurgabetasuna, nahiz eta inpaktu osoaren iraupena eta tamaina oraindik zalantzarriak diren. Hitzarmen honen arabera gauzatu beharreko maileguak lagungarri izan daitezke hasiera batean sartuta zeuden enpresa-sektoreei finantzaketa gehigarria emateko, baldin eta balizko muga-zergen kalteek eta baita azken gertaera horrek eragiten badiete.

Tresna horietako bat finantza-babesa emateko programa bat da, gehienez 450 milioi euroko zuzkidura izango duena mailegutuan. Muga-zergek ukitutako eragileen likidezia-beharrei eta zirkulatzaille-finantzaketari aurre egitea izango du xede.

Mailegu horiek Elkargi, EBBk bermatuko ditu oso-osorik, Laguntza Programaren erakunde laguntzailea den aldetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ere birfinkatu egingo ditu. Era berean, aurreko urtean bezala, hitzarmenak sinatuko dira honen babesean formalizatzen diren mailegu-eragiketak finantzatzeko interesa duten finantza-erakunde guztiekin.

Jakina, hitzarmen horien berri emango zaie onuradun izan daitezkeenei, ohiko prozeduren bidez finantzaketa eskuratzeko formulen berri izan dezaten.

Kreditua lortzeko baldintzak, erakunde onuradunak, baliabideen erabilgarritasuna eta maileguen baldintzak zehazten ditu hitzarmen honek, bai eta Elkargi, EBBn eta finantza-erakunde laguntzaileetan egin beharreko izapideen prozedurak ere. Arestian aipatu den bezala, Ogasun eta Finantza Sailak ere lankidetzaz hitzarmen egokiak sinatuko ditu finantzaketa emango duten eta programari atxikita dauden finantza-erakundeekin.

Elkargi, EBB sozietateak ekimen honetan parte hartu nahi duenez, hitzarmen honetan arautzen dira finantzaketaren xede diren maileguen ezaugarriak, bai eta Elkargi, EBB sozietateak eman beharreko abalenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere gain hartutako arriskuari emandako birfidantzamenduarenak eta finantza-laguntzaren programaren xede den finantzaketa eskuratzeko ezarritako prozedurarenak ere.

Hori guztia dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta Elkargi, EBB sozietateak hitzarmen hau egitea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

## **ESTIPULAZIOAK**

### **LEHENENGOA. - XEDEA ETA EZARPEN-ESPARRUA**

Hitzarmen honen xedea enpresa txiki eta ertainentzako, hautagarri diren enpresa handientzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantzaketa-lerroa eratzea da, hura eskuratzeko baldintzak eta prozedura arautuz. Lerro horren helburua banku finantzaketa eskuratzeko aukera ematea izango da, AEBekin merkataritza-harreman handiena duten jarduera-sektoreetako enpresen likidezia-beharrei aurre egiteko; izan ere, enpresa horiek muga-zergak ezartzearen ondorioak jasan ditzakete, bai eta Ekialde Hurbileko gerraren ondorioak ere.

Hitzarmen honetan xedatutakoaren arabera formalizatzen diren finantzaketa-eragiketa guztiak bermatuko ditu Elkargi, EBBk, eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak birfidantzatuta ere egongo dira.

### **BIGARRENA. - ONURADUNAK**

1.- Honako enpresa eta pertsona hauek baliatu ahal izango dira finantzaketa-programa honetaz eta programa horren bidez emandako bermeez:

- a) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa txiki eta ertainak (ETE), baldintza hauek betetzen dituztenak:
- Jarduera ekonomikoren bat egitea.
  - 250 langile baino gutxiago izatea.
  - Urteko negozio-kopurua, gehienez, 50 milioi eurokoa izatea edo, bestela, urteko balantze orokorra, gehienez, 43 milioi eurokoa izatea.
  - Balantze osoaren % 10 gutxienez osatzen duten funts propioak izatea.
  - Ondoz ondoko 3 urtetan galerarik (emaitza negatiborik) ez izatea.
  - Adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duen beste enpresa batek edo enpresa batzuek elkarrekin ez edukitzea % 25eko edo hortik gorako partaidetza, zuzenean zein zeharka.

Aurretik adierazitakoaren beste edozein interpretazio egiteko, hemen ezarritakoa hartuko da kontuan: Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. Eranskinean (EBAO L 187/1, 2014/06/26) edo hura ordezkatu edo aldatzen dituzten xedapenetan eskatzen diren baldintzak, mikroenpresen, ETE-enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoak (erregelamendu horren arabera, barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira zenbait laguntza-kategoria, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz).

- b) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten banakako enpresaburu eta profesional autonomoek; hau da, hurrengo baldintza hauek betetzen dituztenek:
- Norberaren konturako langileen edo autonomoen Gizarte Segurantzaren araubide berezian alta emanda egotea.
  - Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako jarduera ekonomiko edo profesionaletatik datozen etekinak lortzea.
- c) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa handi hautagarriek, baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:
- Enpresa ez da ETE bat.
  - Langile kopurua ez da 499 baino handiagoa.
  - Urteko negozio-kopurua, gehienez, 100 milioi eurokoa izatea edo, bestela, urteko balantze orokorra, gehienez, 86 milioi eurokoa izatea.

2.- Finantza-laguntza emateko programaren helburua kontuan hartuta, aurreko ataletako batean sartuta egonik, hitzarmen honen I. eranskinean zerrendatutako EJSNren batean sartuta dagoen jarduera ekonomikoren bat egiten duten eragile ekonomikoek soilik eskatu ahal izango dute.

### **HIRUGARRENA. – FINANTZA DAITEZKEEN EGOERAK**

1.- Pertsona edo enpresa onuradun bakoitzaren likidezia-beharrizanak estaltzea xede duten finantzaketa-eragiketak finantzatu ahal izango dira. Finantzaketak pertsona edo enpresa eskatzailearen finantza-galdagarriaren gehikuntza garbia ekarri beharko du, eta, beraz, ezin izango da erabili epe laburreko zirkulatzaila-lerroak ezerezteko edo ordezteko, ez eta epe luzeko finantzaketak aldeztetik ezerezteko ere.

2.- Finantzaketa-beharrak aztertu ondoren, Elkargi, EBBk, hitzarmen honetako zazpigarren klausulan ezarritako prozedurari jarraituz, bermearen helburu den finantza-eragiketaren zenbatekoa eta epea zehaztuko ditu, ahal den neurrian pertsona edo entitate/enpresa eskatzaileek galdegiten dituztenetara egokituta.

### **LAUGARRENA. - MAILEGUEN EZAUGARRIAK**

a) Hauek izango dira finantzaketa-eragiketen ezaugarriak:

**Tresna:** Mailegu amortizagarria.

**Gehieneko interes-tasak:** Euriborra sei hilabetera, gehi % 0,75-eko gehieneko diferentziala. Ondorio horietarako, Euribor gisa ulertu behar da Reuterren EURIBOR= pantailaren bidez (oinarria: Act/360) edo, hori desagertuz gero, informazio bera eman dezakeen beste pantaila baten bidez lortutako bankuen arteko interes-tasa. Tasa hori sei (6) hilabeterako gordailuetarako da, eta eragiketaren dataren edo berrikuspen-dataren aurreko bigarren egun baliadunean kalkulatzen da. Ez da biribiltzerik onartuko.

EURIBOR indizearen balioa zerotik beherakoa bada, interes-aldi bakoitzean aplikatu beharreko tasa zehatza jakiteko egin behar diren kalkuluen ondorioetarako, hitzarmen honetan adierazitakoaren arabera, EURIBOR indizea zero (0,0) dela ulertuko da.

**Mailegu-eragiketen epea.** Bost urte gehienez, eta aukerako bi gabealdi gehienez.

**Likidazio-aldizkakotasuna:** Hiru hilean behin egingo da interes- eta amortizazio-kuoten likidazioa. Interes-tipoa sei hilean behin berrikusiko da.

**Komisioak:** Maileguez ez dute inolako komisio edo gastu gehigarririk izango finantza erakundeari emateko. Mailegu-hartzaileak aurretiaz ezereztu edo amortizatu ahal izango du mailegua, inolako kosturik gabe.

b) Honako hauen artekoa izango da maileguen zenbatekoa:

- 1) 100.000 € eta 1.500.000 € artekoa, enpresa txiki eta ertainentzat eta enpresa handi hautagarrientzat.
- 2) 30.000 € eta 120.000 € artekoa, banakako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat.

c) Enpresa edo pertsona onuradunak eman zaion maileguaren zenbateko osoa izango du erabilgarri. Finantza-erakundeak ezin izango ditu saldoak atxiki edo pignoratu, ezta emandako maileguaren onuradunak eskura dezakeen zenbatekoa murrizteko antzeko figurarik aplikatu ere.

### **BOSGARRENA. - ELKARGI, EBB SOZIJETATEAK EMAN BEHARREKO ABALEN EZAUGARRIAK ETA IZAPIDETZE-PROZEDURA**

Hitzarmen honen babesean, Elkargi, EBB sozietateak abalak emango ditu, honako betekizun eta baldintza hauen arabera:

1.- Elkargi, EBB sozietateak emandako finantza-abalek onuradunen diruzko arriskuak bermatuko dituzte, zuzenean edo zeharka, finantza-erakunde laguntzaileen aurrean, hirugarren klausulan definitutako beharrianak estaltzeko erabili diren mailegu-eragiketetatik eratorri badira. Abal horiek maileguen printzipala eta, hala badagokio, ordainketa-interesak bermatuko dituzte; inola ere ez dute komisorik eta inolako gasturik bermatuko, ezta berandutze-interesik ere, baldin eta mailegu-hartzaileak ordaintzen ez dituen kuotak Elkargi, EBBk ordaintzen baditu ez ordaintzea gertatu denetik 90 egun igaro baino lehen.

2.- Hauek izango dira abalen kostua eta baldintzak:

- Formalizazio-komisioa eta azterketa-komisioa: Formalizatutako abalaren % 0,5, eta behin bakarrik, eragiketa formalizatzen den unean.

- Abal-komisioa: % 0,75 urteko.

Abala jasotako bazkide parte-hartzaileek urte bakoitzean bermatutako gehieneko saldoaren % 0,75 ordaindu beharko diote Elkargi, EBB sozietateari, emandako bermeagatiko abalaren edo arriskuaren urteko komisio gisa, fidantzak irauten duen aldi osoan. Urteko gehieneko saldo hori mailegu bermatuaren kontratuan ezarritako amortizazio-koadroaren arabera zehaztuko da.

Abalaren komisioa aldez aurretik likidatu eta ordaindu beharko da, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, abalatutako mailegu bakoitzean data horretan amortizatzeke dagoen saldoaren gainean. Formalizatu den urtean eta behin betiko iraungiko den urtean, urteari dagokion abalaren komisioa urtea amaitu arte edo iraungi arte benetan igaro den egun kopuruaren arabera proportzioan kalkulatu eta likidatuko da, gehieneko saldoaren arabera. Eragiketa bakoitza formalizatzen den urteari dagokion abalaren komisioa formalizatu den unean ordaindu beharko dute enpresa eta pertsona onuradunek.

Salbuespenez, finantzaketa-eragiketaren printzipalaren zenbatekoa 100.000,00 eurora bitartekoa denean, Elkargi, EBBk, eragiketa formalizatzen den egunean, abalaren zenbatetsitako bizitza osoari dagokion abal-komisio metatua kalkulatu eta likidatuko du. Abalatutako maileguaren urteko indarraldia hastean amortizatu gabe dagoen kapitalari dagokionez kalkulatu da komisio hori, maileguaren amortizazio-taulari jarraituz.

- Elkargi, BBB sozietatearen partaidetzak harpidetzea eta ordaintzea, abalatutako eragiketaren zenbatekoaren % 4ko balioarekin, partaidetza sozial guztiak ordainduz eta, hala badagokio, partaidetza sozial bat gorantz biribilduz, partaidetza hori erregularki balio gabetzen den unean itzulgarriak izango direnak.
- Ez da aplikatuko inolako komisio edo gastu gehigarririk.

3.- Elkargi, EBB sozietateak autonomia izango du jaso dituen abal-eskabideak onartu edo ukatzeko, bai eta kontraberme erreal edo pertsonalak eskatzeko ere; horretarako, abal-jardueran eskuarki erabiltzen dituen azterketa- eta erabaki-irizpideak aplikatuko ditu.

Elkargi, EBB sozietateak bere gain hartzen du konpromisoa idatziz jakinarazteko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak kontraberमतutako abal-eragiketa baten enpresa edo pertsona onuradunari jasotako laguntzaren zenbatekoa (dirulaguntzaren baliokide gordinean adierazia) eta haren "minimis" izaera, dagozkion araudiak berariaz aipatuz.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak birfidantzatu egingo du, kobraezinak partzialki estaliz, Elkargi, EBB sozietateak bere gain hartutako arriskua, hitzarmen honen esparruan bere bazkideei emandako bermeen ondoriozkoa, hurrengo klausulan ezarritakoaren arabera.

## **SEIGARRENA.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN BIRFIDANTZAMENDUA**

Birfidantzamendu honen barruan sartzen dira Elkargi, EBBk izapidetu eta aztertu ostean gauzatu diren abal-eragiketa guztiak, baldin eta Euskal Enpresa Sektorean nazioarteko muga-zergak direla-eta 2026rako sortutako eragin ekonomikoari eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak eragindakoari erantzuteko asmoz finantzatzeko laguntza-programa honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Dena den, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailak ados dagoela agertu beharko du, agiri honen zazpigarren klausulako C) 6. atalean aurreikusitakoaren arabera.

Abal-eragiketen birfidantzamendurako hurrengo baldintza hauek bete beharko dira:

1.-Emandako abal-eragiketak edo hitzarmen honen babesean Elkargi, EBB sozietateak emandakoak CERSAren birfidantzamenduari lotuko zaizkio. CERSAk eragiketen arriskuaren ehuneko bat hartuko du bere gain, Elkargi, EBB sozietatearekin 2026 ekitaldirako hitzarmenean ezarriko duen gehieneko mugara arte.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak modu ezeztazezinean onartuko du eta solidarioki birfidantzatuko du CERSAk bere gain hartzen ez duen arriskuaren zatia, gehienez ere baterako % 80ra arte; beraz, CERSAren eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren birfidantzamenduaren baturak arriskuaren % 80 estaliko du. Elkargi, EBB sozietateak arriskuaren gainerako % 20 hartuko du bere gain zuzenean.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak onartu egingo ditu abala jaso duten kideek Elkargi, EBB sozietatearekin hartutako betebeharrak, hau da, kide horiek abal-eragiketen ondorioz eta horiek indarrean dauden bitartean sozietatearekin dituzten betebeharrak hartuko ditu. Betetze horren irismena aurreko atalean dago zehaztuta. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak hartu duen birfidantzamenduko betebeharrak hori solidarioa da; ondorioz, Elkargi, EBB sozietateak hori betearazteko, ez da behar zordun diren kideen ondasunen eskusioa.

2.- Klausula honetako lehenengo puntuan ezarri den birfidantzamendu solidarioaren hedadura printzipalaren zenbatekoari aplikatuko zaio, eta kideak abala exekutatzegatik Elkargi, EBB sozietateari zor dizkion interesetan sei hilabetetan gehienez ere.

3.- Elkargi, EBB sozietateak egindako edozein berreskuratze, horren arrazoia birfidantzatutako abal-eragiketen ondoriozko obligazioak badira, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari egotziko zaio, kasuan-kasuan onartu duen birfidantzamenduko ehunekoan, klausula honetako 1. atalean ezarritakoaren arabera. Era berean, abala jaso duen kideari dagokionez zorra berreskuratzeko aktibo higigarriak eta higiezinak adjudikatu badira, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak kasuan-kasuan onartu duen birfidantzamenduko ehunekoa jasoko du, klausula honetako 1. atalean ezarritakoaren arabera, egiten den unean, aktibo horiek salduta lortutako prezioaren gainean.

CERSAren birfidantzamendua dagoenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta Elkargi, EBB sozietatearen artean sinatuko den urteroko birfidantzamendu arrunteko hitzarmenean ezarritako prozedura eta gainerakoen arabera egin eta jarraituko dira berreskuratzeagatiko likidazioak.

## **ZAZPIGARRENA. -IZAPIDETZEKO PROZEDURA**

A) Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1.- Enpresa txiki eta ertainek eta baita enpresa handi hautagarriek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskabidea, eranskinen II a) Enpresak ereduaren arabera.
- b) Eskatzailearen ordezkaritza-ahalordearen fotokopia.
- c) Eskabidean jasotzen diren datuak egiazkoak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena (II a) Enpresak eranskinen eredu). Gainbegiratze-bisitan egiaztatu ahal izango dira datuok, eta honako hauek dira:
  - 2025eko ekitaldiko abenduaren 31n plantillan zegoen langile-kopurua, hilabete horretako TC1aren arabera.
  - Fakturazio-zifra 2025eko ekitaldiko abenduaren 31n.
  - Urteko balantze orokorraren zifra 2025eko ekitaldiko abenduaren 31n.
  - Zuzenean edo zeharka, haren kapitalaren %25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea enpresa txiki edo ertaina ez den enpresa batek edo batzuek batera.
  - Sexu-jazarpena edo sexuagatiko jazarpena prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak badituen edo lantzen ari den adierazi; gainera, baldin eta enpresa sinatzaileak 50 pertsona edo gehiago baditu plantillan, emakumeen eta gizonen berdintasun-planik baduen adierazi, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko legeriak ezarritako baldintzetan.
- d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiria.
- e) Foru-aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafea azaltzen duena.
- f) 2023, 2024 eta 2025eko ekitaldietako sozietateen gaineko zerga (2025eko sozietateen gaineko zerga aurkezteko data iritsi ez bada, 2025eko behin-behineko kontuak izango dira baliozkoak), eta 2026ko behin-behineko kontuak.
- g) Enpresa-talde bateko kide izanez gero, taldeko auditoria bateratua eta taldea osatzen duten gainerako enpresen sozietateen gaineko zergak.
- h) Zirkulatzaila finantzatzeko beharren deskribapen-memoria, enpresak egina, eta esparru berriaren arabera egindako kuantifikazioa.
- i) Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2003 Legearen 13. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen direla frogatzeko.

2.- Banakako enpresaburuak eta profesional autonomoek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskabidea, II. eranskinen b) ereduari jasotako ereduaren arabera (Banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak).
- b) Eskabidean jasotako alderdiak egiazkoak direla dioen erantzukizunpeko adierazpena (II. eranskinen b) ereduari: banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak).
- c) Foru-aldundiaren ziurtagiria, profesionalak alta emanda duen ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafea azaltzen duena.
- d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izateari buruzko ziurtagiria.

- e) Eskatzailearen ondasunen aitorpena.
- f) 2024 eta 2025eko ekitaldietako pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga-aitorpena (2025eko errenta-aitorpena egiteko epea iritsi ez bada, 2025eko diru-sarrerak/gastuak izango dira baliozkoak).
- g) 2024 eta 2025eko ekitaldietako pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga-aitorpena (2025eko errenta-aitorpena egiteko epea iritsi ez bada, 2025eko behin-behineko kontuak izango dira baliozkoak).
- h) Zirkulatzailerako finantzatzeko beharren deskribapen-memoria, profesionalak egina, eta esparru berriaren arabera egindako kuantifikazioa.
- i) Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeari buruzko abenduaren 21eko 20/2003 Legearen 13. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen direla frogatzeko.

3.- Eskatzaileak gorago aipatutako aitorpenean jasotako daturen bat faltsutzen badu, indarrean dagoen zigor-araubidea ezarriko zaio, bai administratiboa eta bai penala ere.

4.- Edonola ere, Ogasun eta Finantza Sailak eta Elkargi, EBBk aurkeztu den eskabidea ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen duten informazio osagarria galdegin ahal izango diote enpresa eskatzaileari.

## B) Eskabideak aurkeztea.

1.- Eskabideak eta aurreko artikuluan aipatutako gainerako agiriak Elkargi, EBB sozietateari bidali behar zaizkio, bide telematikoz. Horretarako, eskabide-orria eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dira, hitzarmen honen II. eranskineko ereduarekin bat etorritik.

Eskabidea eta horri lotutako gainerako dokumentazioa aurkeztean, pertsona edo entitate eskatzaileek hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute, bai eta horri buruzko prozedura eta izapideetan ere, indarrean dagoen hizkuntza-araudiaren arabera.

2.- Interesdunek atari honetan eskuratu ahal izango dute eskabideak aurkeztearekin zerikusia duen informazio guztia: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus). Bestalde, eskabideak orrialde honetan aurkeztuko dira <https://www.elkargionline.com/>.

3.- Hitzarmena gauzatzean eskura daitezkeen datu pertsonalak hitzarmenean ezarritako helburuetarako baino ez dira erabiliko. Finantzaketarako laguntzak tratamendu-jardueraren parte dira (ID 1350), eta tratamenduaren arduraduna Ogasun eta Finantza Saileko Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritza da.

Hitzarmena hauek aintzat hartuta gauzatuko da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Elkargi, EBB izango da hitzarmena egikaritu bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta datu pertsonalen babeserako araudian xedatuta dagoena aplikatuko zaio. Hitzarmen honen III. eranskineko datuen konfidentzialtasun- eta tratamendu-kontratua sinatu egingo da.

C) Eskabideak aztertzea eta Abala Baimentzeko Agiria formalizatzea.

1.- Elkargi, EBBren ardura izango da aurkezten dituzten eskabideak aztertu eta ebaluatzea, abala eman aurretik. Ebaluazioa finantzaketa-laguntzen eskabideak aurkeztu diren sarrera-hurrenkeraren arabera egingo da.

2.- Eskabidea ez badago behar bezala beteta edo klausula honen A) apartatuan zehaztutako agiri guztiak ez bazaizkio erantsi, Elkargi, EBBk errekerimendua egingo dio enpresa edo pertsona eskatzaile interesdunari, huts hori zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan 10 eguneko epean; era berean, agindutakoa bete ezean eskabidean atzera egin duela ondorioztatuko dela ohartaraziko zaio.

3.- Elkargi, EBBk Ogasun eta Finantza Sailari jakinaraziko dio onartu ez diren eskabideen zerrenda, eskabidea ez onartzeko arrazoia adierazita. Hori ez da eragozpen izango Ogasun eta Finantza Sailak Elkargi, EBBri eska diezaion egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria.

4.- Elkargi, EBB sozietateak autonomia izango du jaso dituen abal-eskabideak onartu edo ukatzeko, bai eta kontraberme erreal edo pertsonalak eskatzeko ere; horretarako, abal-jardueran eskuarki erabiltzen dituen azterketa- eta erabaki-irizpideak aplikatuko ditu.

Nolanahi ere, Elkargi, EBBk, abal-eragiketak burutzean bere jardunbideak aplika ditzakeen arren, konpromisoa hartzen du abala eskatu duten pertsona edo enpresei objektibotasunaren, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatzeko.

5.- Elkargi, EBBk, eskabidea aztertu ostean, Abala Baimentzeko Agiriaren proposamena egingo du, hala badagokio, eta hitzarmen honen IV. eranskinean azaldutako informazioa zehaztuko da bertan.

6.- Elkargi, EBBk abal-eskaerei buruzko erabakia jakinaraziko dio Finantza Politika eta Aurrekontuen Sailburuordetzari, eta, ondoren, Sailburuordetzak Abala Baimentzeko Agiria ematearen aldeko administrazio-ebazpena emango du, baliozkotutako eragiketaren ezaugarriak zehaztuta.

Baldin eta, Elkargi, EBBrentzat eskuragarri dauden datuen arabera, aurreikusten bada EAEko Administrazioak % 25etik gorako birfidantzamendu-ehunekoa hartuko duela bere gain, inguruabar hori aurreko paragrafoan aipatutako jakinarazpenarekin batera jakinaraziko da.

Era berean, ukatutako abal-eragiketei dagokienez, Sailburuordetzak ebazpen bat emango du ukatzea arrazoitzeko. Ebazpenak Elkargi, EBBri jakinaraziko zaizkio, eta hark, berriz, pertsona edo erakunde eskatzaileari jakinaraziko dizkio, dagozkion ondorioetarako.

7.- Elkargi, EBBk formalizatutako eta ukatutako abal-eragiketak jakinaraziko dizkio Ogasun eta Finantza Sailari, hark eskatzen dizkion aldizkakotasun, betekizun eta ereduak erabiliz.

8.- Hitzarmen honetatik kanpo geratuko dira, programa hau onuradun posibleen premiazko finantzaketa-beharrizanei erantzuteko antolatu denez, “Abala baimentzeko agiria” egin eta gehienez hiru hilabeteko epean formalizatu ez diren eragiketak.

9.- ELKARGI, EBBk ekitaldi-itxieran eta estatistika-helburuekin, jakinaraziko du zenbat enpresa diren abalaren onuradun, enpresen langile-egiturari eta zuzendaritza-organoei buruzko datuak sexuaren arabera bereizita, bai eta berdintasun-planak onartuta dituzten enpresei buruzko informazioa ere.

10.- EAEko Administrazioaren, ELKARGI, EBBren eta finantza-erakunde laguntzaileen artean egiten diren komunikazioak hitzarmen honen V. eranskinean aurreikusitako prozeduraren bidez gauzatuko dira.

#### D) Mailegu-eragiketak formalizatzea.

Elkargi, EBBk bermearen xede den mailegu-eragiketarako «Abala Baimentzeko Agiria» eman ondoren eta agiri hori enpresa edo pertsona eskatzaileak hautatu duen finantza-erakunde laguntzaileari igorri ondoren, azken horrek eragiketa aztertuko du, dagokion autonomia-eremuko barne-prozeduren arabera, eta, gero, hala badagokio, enpresa edo pertsona eskatzailearekin eragiketa formalizatuko du, agirian jasotako baldintzen arabera.

Elkargi, EBBk enpresa edo pertsona eskatzaileari jakinarazi beharko dio abala onartu den ala ez. Hala ere, eta programaren kudeaketa errazteko, Elkargi, EBBk finantza-erakundeei egiten dien aurretiazko jakinarazpena egin ahal izango da Elkargi, EBBk dagokion aldi baimendutako abal-baimenak finantza-erakunde bakoitzerako taldekatuz, betiere IV. eranskinean jasotako oinarritzko datuak adierazita.

#### E) Finantzaketa-lerroa ahitzea.

1.- Hitzarmen honetan aurreikusita dauden bermeak 2026ko abenduaren 31 baino lehen eman beharko dira. Edonola ere, laguntzak emateari utziko zaio hitzarmenaren bidez onartutako finantzaketa-eragiketak 100 milioi euroko gehieneko nominal formalizatura iristen direnean.

2.- Ogasun eta Finantza Sailak horren berri emango du, Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetzaren ebazpen baten bidez; ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta entitate laguntzailei jakinaraziko zaie.

3.- Hasierako zenbatekoa agortuz gero, Ogasun eta Finantzetako sailburuari ahalmena emango zaio finantzaketa-programaren zenbatekoa beste 350 milioi eurora arte handitzeko. Agindu baten bidez emango da horren berri, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, lankidetzako erakundeei jakinarazteaz gainera.

F) Enpresa eta pertsona onuradunen erreklamazioak.

Ogasun eta Finantza Sailak jasoko ditu finantza-laguntzaren programa honetako erakunde eta pertsona eskatzaileek Elkargi, EBBren edo finantza-erakundearen jokabidea dela-eta egindako erreklamazioak, eta Elkargi, EBBri edo kasuan kasuko finantza-erakunde laguntzaileari entzun ostean bideratuko dira. Aurkeztutako erreklamazioak Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetzaren ebazpen baten bidez ebatziko dira.

### **ZORTZIGARRENA. – HITZARMENAREN IRAUPENA**

Hitzarmen hau aplikatuko zaie 2026ko abenduaren 31ra arte nazioarteko muga-zergen egoera berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteko Euskal Enpresa Sektoreari, finantza-laguntza emateko programa garatzeko haren babesean baimendutako abal-eragiketa berriei, salbu eta finantzaketa-lerroaren gehieneko zenbatekoa (450.000.000 €), hala badagokio, handitzearen ondoren, data hori baino lehen agortzen bada; kasu horretan, amaitutzat emango da.

Hitzarmena luzatu ahal izango da, baldin eta horretarako aurrekontu-kreditua badago.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak nahikoa aurrerapenarekin jakinaraziko dio Elkargi, EBBri emateke dagoen zenbatekoa zein den, finantzaketa-lerroa agortu baino lehen, egoera hori gertatzear balego.

**Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak** hitzarmen honetan hartu dituen birfidantzamendurako betebeharrak bere horretan jarraituko dute bermatutako abal-eragiketak erabat iraungi arte.

### **BEDERATZIGARRENA- BATERAGARRITASUNAK**

Hala dagokionean, eragiketek estatuko minimis laguntzak erregulatzeko arauk ezarritakoa beteko dute; honako hauetan bildutakoa, hain zuzen ere: Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 352/1, 2013-12-24); Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza-sektorean minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 352/9, 2013-12-24), eta Batzordearen 2014ko ekainaren 27ko 717/2014 (EB) Erregelamendua, Itunaren 107. eta 108. artikulua arrantza-sektorean minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (EBAO, L 190/45, 2014-06-28).

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio publiko, sail, erakunde publiko zein pribatutatik datozen laguntzekin; betiere, pilaketak edo batuketak ez badakar laguntza-intentsitate bat, kategorien arabera salbuespenen erregelamenduan edo Batzordeak hartutako erabakiren batean inguruabar zehatzetarako ezarritakoa baino handiagoa.

Hitzarmen honen bidez onuradun diren pertsona edo erakundeek beti jakinarazi beharko diote Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari beste dirulaguntza edo laguntzaren bat jaso duten helburu bererako; halaber, zerga-ekitaldi honetan zein aurreko bi ekitaldietatik aurrera gaur egun arte jaso dituzten minimis laguntzak ere jakinarazi beharko dizkiote.

Hitzarmen honetatik kanpo geratuko dira:

- 1) Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzen azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 39. artikuluan 2. eta 4. paragrafoetan ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten enpresa edo banakako enpresari eta profesional autonomoen aldeko berme-eragiketak.
- 2) Taldeko kaudimengabezia-prozedura batean dauden enpresak edo indarrean dauden lehiaketa-arauen bertutez hartzekodunek eskatuta taldeko kaudimengabezia-prozeduraren batean egoteko betebeharrak biltzen dituztenak.

Hala ere, finantzaketa-lerroari heldu ahal izango diote konkurtso-prozedura batean egon diren eta hartzekodunekin hitzarmen bat sinatuta duten enpresek, baldin eta hitzarmen horretan jasotako ordainketak eta betebeharrak egunean badituzte.

### **HAMARGARRENA. - IKUSKAPENA ETA BETEBEHAR FORMALAK**

1.- Finantza-laguntzaren programa honetako enpresa eta pertsona onuradunek eta Elkargi, EBBk onartu beharko dituzte Ogasun eta Finantza Sailak mailegu-eragiketa formalizatu eta gero egiten dituen egiaztapen-, ikerketa- eta azterketa-jarduketak.

2.- Administrazio-jarduketa horien ondorioz egiaztatzen bada okerra edo faltsua dela enpresa edo pertsona onuradunak eskabidean aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenen edukia eta, beraz, a posteriori frogatzen bada ez dituela betetzen onuradun izateko baldintzak, Finantza Politika eta Aurrekontu Sailburuordetzak administrazio-ebazpena emango du, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko entzunaldi-izapidea egin ondoren; halaber, deklaratu du, hala badagokio, ez direla efikazak ez adierazpena bera, ez eta Abala Baimentzeko Agiria ematearen aldeko ebazpena –zazpigarren klausulako C) 6n aipatua–, eta horren berri emango die alderdi interesdun guztiei; hau da, onuradunari, elkar bermatzeko sozietateari eta finantza-erakundeari.

3.- Ez-betetze horrek edo beste edozein ez-betetzek berekin ekarriko du enpresa edo pertsona onuradunak maileguaren zenbatekoa aldeztu aurretik itzuli beharra, bai eta, hala badagokio, Autonomia Erkidegoko Administrazioari, administrazio horren konturako dirulaguntza gordin baliokide inplizitua itzuli beharra ere, legezko interesak barne. Betebehar hori bete ezean, Elkargi, EBBren abala betearazteko eskumena izango du finantza-erakundeak.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere gain hartutako birfidantzamendu-betebeharren ondorioz, egindako pagamenduen ordaina jaso behar badu, erakunde onuradun bati egozteko moduko ez-betetzeen ondorioz, Ogasun eta Finantzetako sailburuak, prozedura egokia bideratu eta entitate onuradunari entzun ondoren, enpresa edo pertsona onuradunaren zorraren zenbatekoa eta hura ordaintzeko modu eta epea zehaztuko ditu.

5.- Elkargi, EBB sozietateak hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, hitzarmena baliogabetu egingo da. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak beste legezko jarduketa administratibo batzuk egin ahal izango ditu.

Hitzarmen honetan jasotako eragiketak izapidetzean gorabeheraren bat gertatuz gero, Elkargi, EBB sozietateak horien berri eman beharko dio Ogasun eta Finantza Sailari.

Nolanahi ere, Ogasun eta Finantza Sailak hitzarmena modu egokian kudeatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango dio Elkargi, EBBri.

6.- Finantza Politika eta Aurrekontuen Sailburuordetzak finantza-laguntzaren programaren aldizkako jarraipena egingo du, bai eta programa horretan lortutako emaitzen ebaluazioa ere, ezarritako neurriek programaren helburua bete ote duten egiaztatzeko, esan nahi baita euskal enpresa-ehunari beharrezko likidezia ematea, nazioarteko muga-zergen testuinguru berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak jarduera ekonomikoan duen eragina arintzeko.

Hitzarmen honen arabera beste organo batzuei emandako eskudantziak ezertan eragotzi gabe, Ogasun eta Finantza Saileko Finantza Politika eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritza arduratuko da programaren administrazio-kudeaketaz.

## **HAMAIKAGARRENA. - BESTELAKO XEDAPENAK**

Hitzarmen hau aplikatu, bere segimendua egin eta interpretatzea Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailaren ardura izango da.

Eta aipaturiko guztiarekin ados daudela erakusteko, Hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan ageri diren lekuan eta egunean.

EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

ELKARGI, ELKARREKIKO  
BERME-BALTZUA, EBB  
ahalardez

Izpta.: Noël d'Anjou Olaizola

Izpta.: Zenón Vázquez Irizar

## I. ERANSKINA JESN ZERRENDA

JESN09	JESN-2009 Izenburua
0311	Alturako arrantza (atunontzi izozkailuak)
1022	Arrain-kontserbak
1102	Ardogintza
1103	Sagardoa eta frutatik eratorritako beste edari hartzitu batzuk egitea
1104	Destilatu gabeko eta hartziduratik eratorritako bestelako edarigintza
1105	Garagardogintza
1106	Maltagintza
2410	Burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko oinarritzko produktuen fabrikazioa
2420	Altzairuzko hodiak, hoditeriak, profil hutsak eta haien osagarriak fabrikatzea
2431	Hotzeko tenkaketa
2432	Hotzeko ijezketa
2433	Tolesketadun konformazio bidezko hotzeko profilen ekoizpena
2434	Hotzeko trefilaketa
2442	Aluminio-ekoizpena
2443	Berunaren, zinkaren eta eztainuaren ekoizpena
2444	Kobrearen ekoizpena
2445	Burdinazkoak ez diren beste metal batzuen ekoizpena
2451	Burdinaren galdaketa
2452	Altzairuaren galdaketa
2453	Metal arinen galdaketa
2454	Burdinazkoak ez diren bestelako metalen galdaketa
2511	Egitura metalikoen eta haien osagaien fabrikazioa
2512	Arotzeria metalikoaren fabrikazioa
2521	Berokuntza zentralerako berogailuak eta galdarak fabrikatzea
2529	Metalezko beste patinak, biltoki handiak eta edukiontziak egitea
2530	Lurrun-sorgailuak egitea, berokuntza zentralerako galdarak izan ezik
2550	Metalen forjaketa, estanzazioa eta enbutizioa; hauts-metalurgia
2561	Metalen tratamendu eta estaldura
2572	Sarrailak eta burdineria egitea
2573	Erremintak egitea
2711	Motor, sorgailu eta transformadore elektrikoak egitea
2712	Banaketa eta kontrolerako aparatu elektrikoak egitea
2720	Pila eta metagailu elektrikoak egitea
2732	Beste hari eta kable elektroniko eta elektriko batzuk egitea
2733	Kableatu-gailuen fabrikazioa
2740	Lanparak eta argiztatzeko gailu elektrikoak egitea
2751	Etzetresna elektrikoak egitea
2752	Elektrikoak ez diren etzetresnak egitea

**JESN09 JESN-2009 Izenburua**

2811	Motorren eta turbinen fabrikazioa, aireontzi, ibilgailu automobil eta ziklomotorretarako direnak izan ezik
2812	Transmisio hidraulikoko eta pneumatikoko ekipoen osagaiak egitea
2813	Beste ponpa eta konpresore batzuk egitea
2815	Kojineteak, engranajeak eta transmisio-organo mekanikoak egitea
2821	Labeen eta erregailuen osagaiak egitea
2822	Jasotze- eta manipulazio-makinen fabrikazioa
2823	Bulegoko makinak eta ekipoak egitea, ekipo informatikoak izan ezik
2824	Eskuzko erreminta elektrikoak egitea
2825	Etixerakoa ez den aireztatzeko eta hozteko makineria egitea
2829	Erabilera orokorreko beste makineria batzuk egitea, b.i.s.g.
2830	Nekazaritza eta basogintzako makineria egitea
2841	Metalak lantzeko makina-erremintak egitea
2849	Beste makina-erreminta batzuk egitea
2891	Metalgintza-industriarako makineria egitea
2892	Erauzketa-industriarako eta eraikuntzarako makineria egitea
2893	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriarako makineria egitea
2894	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako industrietarako makinak egitea
2895	Paperaren eta kartoiaren industriarako makinak egitea
2896	Plastikoaren eta kautxuaren industrietarako makinak egitea
2899	Erabilera berezietarako beste makina batzuk egitea, b.i.s.g
2910	Ibilgailu motordunak egitea
2920	Ibilgailu motordunentzako karrozeriak fabrikatzea; atoiak eta erdiatoiak fabrikatzea
2931	Motordun ibilgailuen ekipo elektrikoak eta elektronikoak egitea
2932	Ibilgailu motordunen beste osagai, pieza eta osagarri batzuk egitea
3091	Motozikleten fabrikazioa
3099	Bestelako garraio-materiala egitea b.i.s.g.
3101	Bulegoko eta dendetako altzariak egitea
3102	Sukaldeko altzariak egitea
3103	Koltxoak egitea
3109	Bestelako altzariak egitea

## II. ERANSKINAESKABIDE ORRIA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

### II. a) ENPRESAK

### ESKABIDE-ORRIA

Espediente-zenbakia: .....Sozietatearen izena:.....

Nik, ..... jaunak/andreak  
NAN:

Kargua:.....

Enpresa honen legezko ordezkari gisa: ..... IFZ:.....

Enpresaren ..... jarduera:  
.....

Enpresaren egoitza soziala: ..... eta

Tel.:.....Faxa:.....Helbide elektronikoa:.....

Honen bidez, «Euskal Enpresa Sektoreari Finantza Laguntza emateko Programan sartzea eskatzen dut, 2026. urterako, nazioarteko muga-zergen egoera berriaren eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoaren ondoriozko eragin ekonomikoari erantzuteko».

Data eta sinadura:

Erantsitako agiriak:

- Eskatzailearen ordezkari-tza-ahalordearen fotokopia.
- Enpresaren datuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Foru-aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen ekonomia-jardueren gaineko zerga azaltzen duena.
- 2023, 2024 eta 2025eko sozietateen gaineko zerga.
- Zirkulatu-ile-beharren deskribapen-memoria, enpresak egin, eta esparru berriaren arabera egindako kuantifikazioa.
- 2025eko behin-behineko balantzea eta galera-irabazien kontua (2025eko sozietateen gaineko zerga aurkezteko data iritsi ez bada).
- 2026ko behin-behineko balantzea eta galera-irabazien kontua.

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartu: *Finantzaketarako laguntzak*.

- **Arduraduna:** Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritza, Ogasun eta Finantza Saila.
- **Helburua:** Enpresa txikientzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programak kudeatzea.
- **Legitimazioa:**
  - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- **Hartzaileak:**
  - Bankuak, kutzak eta baserritarren kutzak
  - Bestelako finantza-erakundeak
- **Eskubideak:** Eskubidea duzu datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian jasotzen direnak.
- **Informazio gehigarria:** Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultatu nahi izanez gero, jo gure web-orri honetara:
- [https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-a2datuba/es/es/contenidos/informacion/rat/es\\_def/adjuntos/1350\\_es.html](https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-a2datuba/es/es/contenidos/informacion/rat/es_def/adjuntos/1350_es.html)
- <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/066200-capa2-eu.shtml>

#### **Araudia:**

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES))
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673))

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Espediente-zenbakia: .....Sozietatearen izena:.....

.....Jaun/andrea..... NAN:.....

Kargua:.....

Enpresa honen legezko ordezkari gisa: ..... IFZ:.....

### ADIERAZTEN DU:

- 1.- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela.
- 2.- ETEaren edo enpresa handi hautagarriaren baldintzak betetzen dituela, irizpide hauen arabera:
  - a) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa txiki eta ertainak (ETE), baldintza hauek betetzen dituztenak:
    - Jarduera ekonomikoren bat egitea.
    - 250 langile baino gutxiago izatea.
    - Urteko negozio-bolumena gehienez 50 milioi euro izatea, edo, bestela, urteko balantze orokorra gehienez 43 milioi euro izatea.
    - Zuzenean edo zeharka, kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez egotea aurretik adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duen enpresa baten edo batzuen eskuetan.

Aurretik adierazitakoaren beste edozein interpretazio egiteko, hemen ezarritakoa hartuko da kontuan: Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. Eranskinean (EBAO L 187/1, 2014/06/26) edo hura ordezkatu edo aldatzen dituzten xedapenetan eskatzen diren baldintzak, mikroenpresen, ETE-enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoak (erregelamendu horren arabera, barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira zenbait laguntza-kategoria, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz).
  - b) Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa handi hautagarriak, baldin eta hurrengo baldintzak betetzen badituzte:
    - Enpresa ez da ETE bat.
    - Langile kopurua ez da 499 baino handiagoa.
    - Urteko negozio-bolumena gehienez 100 milioi euro izatea, edo, bestela, urteko balantze orokorra gehienez 86 milioi euro izatea.
- 3.- Indarrean dauden legeen arabera, zerga-betebeharren egoera erregularizatuta duela foru-aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta haren sektore publikoko entitateekin.

- 4.- Egoera erregularizatuta duela Gizarte Segurantzarekin.
- 5.- Eskaera hau aurkezteko unean, ez duela ezarrita zehapen administratibo edo penalik sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik.
- 6.- Honako hauek direla enpresa eskatzailearen datuak, Europako Batzordearen 2003/05/06ko Gomendioan adierazitakoaren arabera –mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoa da gomendio hori–; enpresa handi hautagarriak ere tartean sartzen dira:

	Langile-kopurua	Negozio-bolumena €	Urteko balantze orokorra €
<b>Itxitako azken ekitaldia</b>			
<b>Itxitako azken-aurreko ekitaldia</b>			

- 7.- Betetzen dituela Dirulaguntzei buruzko abenduaren 21eko 20/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak.

Data eta sinadura: .....

## II. b) BANAKAKO ENPRESABURUAK ETA PROFESIONAL AUTONOMOAK

### ESKABIDE-ORRIA

Espediente-zenbakia: .....Sozietatearen izena:.....

.....Jaun/andrea..... NAN:.....

Kargua:.....

Enpresa honen legezko ordezkari gisa: ..... IFZ:.....

Enpresaren ..... jarduera:  
.....

Enpresaren egoitza soziala: ..... eta

Tel.:.....Faxa:.....Helbide elektronikoa:.....

Honen bidez, «Euskal Enpresa Sektoreari Finantza Laguntza emateko Programan sartzea eskatzen dut, 2026. urterako, nazioarteko muga-zergen egoera berriaren eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoaren ondoriozko eragin ekonomikoari erantzuteko».

Data eta sinadura:

Erantsitako agiriak:

- Datu partikularrei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
  - Zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
  - Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
  - Foru-aldundiaren ziurtagiria, profesionalak alta emanda duen ekonomia-jardueren gaineko zerga azaltzen duena.
- 2024 eta 2025eko ekitaldietako pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga-aitorpena (2025eko errenta-aitorpena egiteko epea iritsi ez bada, 2025eko diru-sarrerak eta gastuak izango dira baliozkoak).
  - Eskatzailearen ondasunen aitorpena.
- Zirkulazaila-beharren deskribapen-memoria, enpresak egina, eta esparru berriaren arabera egindako kuantifikazioa.

- Kaudimenaren aitortpena (ondarea eta zorrak), diru-sarreraren eta gastuen kalkulua, likidezia-egoera, inbertsioen aurreikuspena eta 2026rako finantzaketa-beharrak.

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta izen hau duen tratamendu-jardueran sartu: *Finantzaketarako laguntzak*.

- **Arduraduna:** Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritza, Ogasun eta Finantza Saila.
- **Helburua:** Enpresa txikientzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programak kudeatzea.
- **Legitimazioa:**
  - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- **Hartzaileak:**
  - Bankuak, kutzak eta baserritarren kutzak
  - Bestelako finantza-erakundeak
- **Eskubideak:** Eskubidea duzu datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko, baita beste eskubide batzuk ere, informazio osagarrian jasotzen direnak.
- **Informazio gehigarria:** Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultatu nahi izanez gero, jo gure web-orri honetara:
- [https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-a2datuba/es/es/contenidos/informacion/rat/es\\_def/adjuntos/1350\\_es.html](https://www.euskadi.eus/registro-de-actividades-de-tratamiento-rat/web01-a2datuba/es/es/contenidos/informacion/rat/es_def/adjuntos/1350_es.html)
- <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/066200-capa2-eu.shtml>

#### **Araudia:**

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673))

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Espediente-zenbakia: .....Sozietatearen izena:.....

.....Jaun/Andrea..... NAN:.....

### ADIERAZTEN DU:

- 1.- Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duela.
- 2.- Alta emanda duela Gizarte Segurantzako norberaren konturako langileen edo langile autonomoen araubide berezian.
- 3.- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotutako jarduera ekonomiko edo profesionaletatik datozen etekinak lortzen dituela.
- 4.- Indarreko legediaren arabera, zerga-betebeharrei dagokienez, Foru Aldundiekin egoera erregularizatuta duela, baita Eusko Jaurlaritzarekin edo haren edozein sozietate edo erakunderekin ere.
- 5.- Egoera erregularizatuta duela Gizarte Segurantzarekin.
- 6.- Eskaera hau aurkezteko unean, ez duela ezarrita zehapen administratibo edo penalik sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik.
- 7.- Dirulaguntzei buruzko abenduaren 21eko 20/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela.

Data eta sinadura: .....

### III. ERANSKINA ISILPEKOTASUN KONTRATUA ETA DATUEN TRATAMENDUA

#### KONFIDENTZIALTASUN- ETA DATUEN TRATAMENDU-KONTRATUA

Alde batetik: **Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritza**, (helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz; IFZ: S4833001C), DATUEN TRATAMENDUAREN ORGANO ARDURADUNA den aldetik. Behean sinatzen duenak ordezkutzen du, Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko zuzendari gisa.

Eta, bestetik: **Elkargi, EBB**, (egoitza soziala: Mikeletegi pasealekua 50, Donostia; IFK: V 20066411), TRATAMENDUAREN ARDURADUNA den aldetik, behean sinatzen duenak ordezkatuta, sozietatearen zuzendari nagusi gisa.

<b>Tratamenduaren izena</b>	Finantzaketarako laguntzak (ID 1350)
<b>Helburua</b>	Enpresa txikientzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programak kudeatzea
<b>Interesa duten taldeak</b>	Enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak.
<b>Eskuragarri egongo diren tratamenduko datu pertsonalak</b>	Identifikazio-datuak: izenak, telefonoak, faxa, e-mailak, NANA, helbidea Datu ekonomiko eta finantzarioak
<b>Kontratu honen iraupena</b>	Nazioarteko muga-zergen egoera berriaren eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoaren ondoriozko eragin ekonomikoari erantzuteko asmoz euskal enpresa sektoreari finantza laguntza emateko programa sinatzen denetik programaren kudeaketa amaitu arte.
<b>Datu pertsonalekin zer egin kontratua amaitzean</b>	Tratamenduaren arduradunari datu pertsonalak itzultzea eta, hala badagokio, datu pertsonalak dituzten euskarriak ematea, prestazioa bete ostean. Itzultzeaz gain, kontratistak erabiltzen dituen ekipo informatikoetan dauden datu pertsonal guztiak ezabatu beharko dira. Hala ere, kontratistak kopia bat gorde ahalko du, datu

	pertsonalak behar bezala blokeatuta betiere, kontratuaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.
<b>Azpikontratazioa</b>	Ez azpikontratatu kontratu honen xedea osatzen duten eta datu pertsonalen tratamendua dakarten prestazioak; salbuespen dira eragilearen zerbitzuen funtzionamendu normalerako beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak.
<b>Nazioarteko transferentziak</b>	Ez dago halakorik

## Alderdien eginbeharrak eta betebeharrak

### A. Tratamenduaren arduradunaren betebeharrak

Tratamenduaren arduradunak eta bere langile guztiek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Tratatu beharreko datu pertsonalak edo kargatzeko bildutakoak enkargu honetan aipatutako xederako soilik erabiltzea. Inola ere ezin izango ditu datuak bere helburuetarako erabili.
2. Datuak tratamenduaren organo arduradunak emandako jarraibideen arabera tratatuko dira, eta ezingo dira aplikatu edo erabili beste ezein helburuetarako, ezta beste inoren esku jarri ere.
3. Isilpean gordetzea eskuratzen dituen datu pertsonalak —datu horiek gordetzeko betebeharrak bere horretan iraungo du tratamenduaren ardura duen erakundearekin harremanak amaitu ostean ere—.
4. Beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak ezartzea datu pertsonalen segurtasuna eta konfidentzialtasuna, erabilgarritasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek baimenik gabe aldatzea, galtzea, tratatzea edo eskuratzea saihesteko. Gainera, hala badagokio, datu pertsonalak seudonimizatu eta zifratu beharko ditu, eta datu pertsonalen eskuragarritasuna eta sarbidea azkar berrezarri, gertakari fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero. Era berean, tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarri diren neurri tekniko eta antolakuntzako eraginkortasuna aldi-aldi egiaztatu, ebaluatu eta balioztatu beharko du.
5. Bermatzea datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen berriak eta idatziz hartzen dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa. Eta, gainera, organo arduradunaren esku uztea aipatutako hori egiaztatze dokumentazioa.
6. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen datu pertsonalak babesteko behar den prestakuntza bermatzea.
7. Tratamenduaren ardura duen organoari laguntzea, interesdunen eskubideak – datuen babesari buruzko araudian aurreikusitakoak— baliatzeari erantzuten. Ukitutako pertsonen tratamendu-eragilearen aurrean baliatzen dituztenean

eskubideak, berehala jakinarazi beharko diote tratamenduaren ardura duen organoari.

8. Hala badagokio, segurtasun-urraketak bidegabeko atzerapenik gabe jakinaraztea, eta, nolana ere, 72 orduko gehieneko epea amaitu baino lehen. (Informazioa gordeta zeukaten gailuen galera edo lapurreta...)
9. Tratamenduaren organo arduradunaren esku jartzea betebeharrak betetzen direla frogatzeko eta dagozkion auditoretzak edo ikuskapenak egiteko behar duen informazio guztia

Tratamenduaren eragileak datu horiek beste xede baterako erabiltzen baditu, edo beste baten esku uzten baditu, edo dokumentu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, hura ere tratamenduaren erantzuleztat joko da, eta berak erantzun beharko du, egon litezkeen arau-hausteak direla-eta.

#### **B. Tratamenduaren ardura duen organoaren betebeharrak**

Tratamenduaren arduraduna den organoari honako hauek dagozkio:

1. Aldez aurretik eta tratamendu osoan zaintzea Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorra eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betetzen direla.
2. Tratamendua gainbegiratzea.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.

FINANTZA POLITIKA ETA  
GIZARTE AURREIKUSPEN  
ZUZENDARITZA

ELKARGI, ELKARREKIKO  
BERME-BALTZUA, EBB

Izpta.: Juan Alberdi Alberdi

Izpta.: Zenón Vázquez Irizar

IV. ERANSKINA  
 ABALA BAIMENTZEKO AGIRIA

**ELKARGI, EBB-REN ABAL-BAIMENAK  
 MUGA-ZERGA ETAKATAZKA EKIALDE HURBILEAN 2026**

**DATA: Noiztik      noiz arte**

ZK. ESPEDIENTEA:	TITULARRA	TTK*	EJSN*	ZENBATEKOA	EPEA	GABEALDIA	INTERESA	FINANTZA- ERAKUNDEA
---------------------	-----------	------	-------	------------	------	-----------	----------	------------------------

Honen bitartez fede ematen dut ..... EBBk baimena eman duela (bigarren klausulan deskribatutako enpresari/pertsonari) abala eman eta gauzatzeko, eranskin honetan azaldutako baldintzei jarraituz, hori guztia muga-zergen nazioarteko egoera berriaren eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoaren inpaktu ekonomikoari aurre egiteko EAEko enpresa-sektoreari finantza-babesa emateko programan araututako baldintzen arabera, 2026. urterako.

.....(e)n, 2026ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

EBB

TTK\*: IFK-IDENTIFIKAZIO FISKALA  
 EJSN\*: EKONOMIA-JARDUEREN SAILKAPEN NAZIONALA

Sin

V. ERANSKINA  
FINANTZA POLITIKAKO ETA GIZARTE AURREIKUSPENEN  
ZUZENDARITZAK ELKARGI, EBB SOZIJETATEARI EGINDAKO  
JAKINARAZPENA. GAIA: EUSKAL ENPRESA SEKTOREARI  
NAZIOARTEKO MUGA-ZERGEN EGOERA BERRIAREN ETA  
EKIALDE HURBILEKO GATAZKA BELIKOAREN ONDORIOZKO  
ERAGIN EKONOMIKOARI ERANTZUTEN LAGUNTZEKO  
FINANTZA LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMAREN KUDEAKETA  
2026 URTERAKO.

Finantza-erakunde laguntzaileek eta Elkargi, EBB sozietateak, formalizatutako maileguen sozietate abal-emailea den aldetik, Euskal Enpresa Sektoreari Finantza Laguntza emateko Programan ezarritako informazio jakin bat bidali behar dute, nazioarteko muga-zergen egoera berriak eta Ekialde Hurbileko gatazka belikoak sortutako eragin ekonomikoari erantzuteko, eta, zehazki, formalizatutako hitzarmenetan ezartzen dena. Informazio hori Elkargi, EBBk programaren esparruan abalaturako maileguen xehetasunei buruzkoa da.

Finantza Politikako eta Aurrekontuetako Sailburuordetza eta, zehazki, Finantza Politikako eta Gizarte Aurreikuspeneko Zuzendaritza da hitzarmen honetatik eta lankidetzak-hitzarmenetatik eratorritako alderdien administrazio-kudeaketaz arduratzen den organoa.

Ogasun eta Finantza Sailak programa kudeatzeko behar den informazioa (abalak eta dirulaguntzak) trukatzeko gune propio bat jarri du Elkargi, EBBren esku.

Beharrezkoa da identifikatzea bai Elkargiren karpetara sartzeko baimena duten pertsonak, bai direktorio horretan aurkeztutako dokumentuak sinatuko dituen pertsona. Izen-abizenak, NAN, harremanetarako telefono-zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea.

Windowseko 365 Atarian, Finantza Politikako Zuzendaritzan «2026ko MUGA-ZERGAK eta EKIALDE HURBILEKO GATAZKA Programa» izeneko atal bat dago, hainbat karpetarekin, eta, horren barruan, Elkargi, EBBrentzako karpeta espezifiko bat.

Behar diren egiaztapenen eta segurtasun-neurri egokien bidez, pertsona baimenduak bere karpeta espezifikoan sartu ahal izango du laguntza-programak eta hitzarmenak eskatzen dioten dokumentazio guztia.

Finantza Politikako Zuzendaritza irekitako karpeta bakoitzera sartu ahal izango da, eta karpeta horietatik programa kudeatzeko beharrezkotzat jotzen diren komunikazioak eta erantzunak partekatuko ditu.

Elkargi, EBB sozietateak programari atxikitako mailegu guztiak abalaturatu, eta mailegu horiek, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak birfidantzatzen ditu.

Hauek dira direktorio horretan dauden karpetak

**1.- ABALAK.** Azpikarpeta hauek ditu barruan:

- 1. INPRIMAKIAK-ESKABIDEAK.** Elkargi, EBBk hemen erantsi ditu egindako abal-eskaeren inprimaki guztiak. (pdf eta Excel formatuetan). Dagokion pertsona baimenduaren sinadurarekin.
- 2. ONARTUTAKO ABALAK.** Elkargi, EBBk onartutako abalen berri eman du (**F4 inprimakiak. (Mailegu berriak)**). Elkargi, EBB sozietateak eragiketari onspena ematen dion gutuna aurkeztuko dio enpresari. Dokumentuetan baimendutako pertsonaren sinadura agertuko da. (pdf eta Excel formatuetan).
- 3. UKATUTAKO ABALAK** Elkargi, EBBk ukatutako abalak jakinarazi ditu, osorik edo zati batean ukatutakoak (pdf eta Excel, baimendutako pertsonak sinatuta). Elkargi, EBB sozietateak egindako jakinarazpena aurkeztuko dio enpresari, abalaren ukapena erabatekoa denean, eta ukapena justifikatzen duten arrazoiak ere jakinaraziko ditu. Horietako bakoitzerako PDF bat erantsiko du, baimendutako pertsonaren sinadurarekin.
- 4. FPZ.** FPZk aldi bakoitzeko abalei buruzko dokumentuak pdf formatuan Elkargi, EBB sozietateari emateko gunea. FPZk Elkargi, EBB sozietateari jakinaraziko dizkio osorik ukatutako eragiketei buruz emandako ebazpenak, enpresa edo pertsona onuradunei ere helaraz diezazkien.

**2. KOMUNIKAZIOAK.** Elkargirekin gutunak eta erantzunak trukatzeko gunea, «2026ko MUGA-ZERGEN eta EKIALDE HURBILEKO GATAZKA programari» dagokionez.